

2015eko UZTAILAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **10 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko uztailaren 30ean, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Jesus Arana Gomez jn. <i>2015eko uztailaren 16ko 1049 dekretuaren bidez Alkatetzak emandako eskuordetzaz baliatuta</i>
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Imanol Lasa Ceberio jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Etorri ez dena	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA

a) 2015eko ekainaren 13koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

b) 2015eko uztailaren 16koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2015eko ekainaren 15etik uztailaren 24ra

Segidan, Alkatetzak 2015eko ekainaren 15etik uztailaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko uztailaren 20koa

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko uztailaren 20an hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- GAI HAUEN BERRI JAKITEA

a) 1076 Dekretua: Eskumenak eskuordetzea. Udal Musika Eskola

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotako dekretuaren berri eman du **idazkari** andreak:

Alkatetzaren 1076 dekretua, 2015eko uztailaren 23koa:

“2014ko urriaren 29an egindako bilkuran Udalbatzarrak onartu zuen, aho batez, “Imanol Urbietia” udal musika eskolaren barne arautegia. Arautegiaren testu osoa 2015eko urtarrilaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2zk.) argitaratu zen.

Arautegi horren arabera, Zarauzko alkateari –edo hark bere ordez izendatutako zinegotziari– dagokio “Imanol Urbietia” udal musika eskolako Zuzendaritza Batzordeko eta Eskola Kontseiluko lehendakaritza.

Honako aginduek:

- apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki -arabidearen Oinarriak arautzen dituenak (bai apirilaren 21eko 11/1999 Legeak bai abenduaren 16ko 57/2003 Legeak, tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzkoak, aldatua), 21.3 eta 23.4 artikuluetan;
- azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 43.3 eta 43.4 artikuluetan;
- azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua), 13. artikuluan, eta
- “Imanol Urbietia” Udal Musika eskolaren barne arautegiak (Udalbatzarrak 2014ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran onartua)

ematen dizkidaten eskurantzak erabilia,

ERABAKI DUT

Lehena.- Kultura zinegotzi arduradun NEKANE IRIBAR IRIONDO andreari eskuordetzea “Imanol Urbietia” udal musika eskolako Zuzendaritza Batzordeko eta Eskola Kontseiluko lehendakaritza.

Bigarrena.- Eskuordetza horrek eragina izango du ordezkariak zinegotzi izaera duen denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetza aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

Hirugarrena.- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, eskuordetza onar dezan. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratzea.”

b) Informazio-batzordeetan adskribatutako zinegotziak

Era berean, informazio-batzordeen osaeraren berri eman zaio Udalbatzarrari. Honela osatuta geratu dira:

INFORMAZIO BATZORDEAK

GOBERNANTZA BATZORDEA

Jesus Arana Gomez	Titular	EAJ-PNV
Maite Garrastazu Aranguren	Titular	EAJ-PNV
Iban San Martin Hernandez	Titular	EAJ-PNV
Mikel Goenaga Gubia	Titular	EH Bildu
Naiara Carvajal Larrañaga	Titular	EH Bildu
Gloria Vazquez Herranz	Titular	PSE-EE
Ana De Benito Sanz	Titular	Irabazi Zarautz

Ixidor Larrañaga Ayerbe	Ordezko	EAJ-PNV
Nekane Iribar Iriondo	Ordezko	EAJ-PNV
Jon Andoni Urdangarin Urrutia	Ordezko	EAJ-PNV
Iñaki Eizagirre Eizagirre	Ordezko	EH Bildu
Aitor Korta Etxabe	Ordezko	EH Bildu
Pablo Garcia Astrain	Ordezko	PSE-EE

Oihane Delgado Pita	Ordezko	Irabazi Zarautz
---------------------	---------	-----------------

HIRIGINTZA BATZORDEA

Xabier Txurruka Fernandez	Batzordeburua	EAJ-PNV
Maite Garrastazu Aranguren	Titular	EAJ-PNV
Iban San Martin Hernandez	Titular	EAJ-PNV
Mikel Goenaga Gubia	Titular	EH Bildu
Aitor Korta Etxabe	Titular	EH Bildu
Gloria Vazquez Herranz	Titular	PSE-EE
Ana De Benito Sanz	Titular	Irabazi Zarautz

Jesus Arana Gomez	Ordezko	EAJ-PNV
Jon Andoni Urdangarin Urrutia	Ordezko	EAJ-PNV
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal	Ordezko	EAJ-PNV
Iñaki Eizagirre Eizagirre	Ordezko	EH Bildu
Naiara Carvajal Larrañaga	Ordezko	EH Bildu
Pablo Garcia Astrain	Ordezko	PSE-EE
Oihane Delgado Pita	Ordezko	Irabazi Zarautz

GIZARTE POLITIKAKO BATZORDEA

Miren Letamendia Belloso	Titular	EAJ-PNV
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal	Titular	EAJ-PNV
Maite Garrastazu Aranguren	Titular	EAJ-PNV
Naiara Carvajal Larrañaga	Titular	EH Bildu
Karmele Alberdi Linazasoro	Titular	EH Bildu
Gloria Vazquez Herranz	Titular	PSE-EE
Oihane Delgado Pita	Titular	Irabazi Zarautz

Nekane Iribar Iriondo	Ordezko	EAJ-PNV
Iban San Martin Hernandez	Ordezko	EAJ-PNV
Jesus Arana Gomez	Ordezko	EAJ-PNV
Mikel Goenaga Gubia	Ordezko	EH Bildu
Ane Arruti Lopetegi	Ordezko	EH Bildu
Pablo Garcia Astrain	Ordezko	PSE-EE
Ana De Benito Sanz	Ordezko	Irabazi Zarautz

KULTURA BATZORDEA

Nekane Iribar Iriondo	Titular	EAJ-PNV
Jesus Arana Gomez	Titular	EAJ-PNV
Ixidore Larrañaga Ayerbe	Titular	EAJ-PNV
Ane Arruti Lopetegi	Titular	EH Bildu
Aitor Korta Etxabe	Titular	EH Bildu
Gloria Vazquez Herranz	Titular	PSE-EE

Oihane Delgado Pita	Titular	Irabazi Zarautz
---------------------	---------	-----------------

Maite Garrastazu Aranguren	Ordezko	EAJ-PNV
Miren Letamendia Beloso	Ordezko	EAJ-PNV
Jon Andoni Urdangarin Urrutia	Ordezko	EAJ-PNV
Mikel Goenaga Gubia	Ordezko	EH Bildu
Naiara Carvajal Larrañaga	Ordezko	EH Bildu
Pablo Garcia Astrain	Ordezko	PSE-EE
Ana De Benito Sanz	Ordezko	Irabazi Zarautz

TURISMO BATZORDEA

Ixidor Larrañaga Ayerbe	Titular	EAJ-PNV
Nekane Iribar Iriondo	Titular	EAJ-PNV
Iban San Martin Hernandez	Titular	EAJ-PNV
Karmele Alberdi Linazasoro	Titular	EH Bildu
Xabier Vazquez Izquierdo	Titular	EH Bildu
Pablo Garcia Astrain	Titular	PSE-EE
Oihane Delgado Pita	Titular	Irabazi Zarautz

Maite Garrastazu Aranguren	Ordezko	EAJ-PNV
Jesus Arana Gomez	Ordezko	EAJ-PNV
Jon Andoni Urdangarin Urrutia	Ordezko	EAJ-PNV
Naiara Carvajal Larrañaga	Ordezko	EH Bildu
Ane Arruti Lopetegi	Ordezko	EH Bildu
Gloria Vazquez Herranz	Ordezko	PSE-EE
Ana De Benito Sanz	Ordezko	Irabazi Zarautz

KIROL BATZORDEA

Iban San Martin Hernandez	Titular	EAJ-PNV
Nekane Iribar Iriondo	Titular	EAJ-PNV
Ixidor Larrañaga Ayerbe	Titular	EAJ-PNV
Ane Arruti Lopetegi	Titular	EH Bildu
Xabier Vazquez Izquierdo	Titular	EH Bildu
Pablo Garcia Astrain	Titular	PSE-EE
Ana De Benito Sanz	Titular	Irabazi Zarautz

Maite Garrastazu Aranguren	Ordezko	EAJ-PNV
Jesus Arana Gomez	Ordezko	EAJ-PNV
Jon Andoni Urdangarin Urrutia	Ordezko	EAJ-PNV
Mikel Goenaga Gubia	Ordezko	EH Bildu
Aitor Korta Etxabe	Ordezko	EH Bildu
Gloria Vazquez Herranz	Ordezko	PSE-EE
Oihane Delgado Pita	Ordezko	Irabazi Zarautz

GIZA ESKUBIDEEN ETA BIZIKIDETZAREN BATZORDEA

Imanol Lasa Zeberio	Titular	EAJ-PNV
Nekane Iribar Iriondo	Titular	EAJ-PNV
Jon Andoni Urdangarin Urrutia	Titular	EAJ-PNV
Mikel Goenaga Gubia	Titular	EH Bildu
Naiara Carvajal Larrañaga	Titular	EH Bildu
Gloria Vazquez Herranz	Titular	PSE-EE
Ana De Benito Sanz	Titular	Irabazi Zarautz

Maitte Garrastazu Aranguren	Ordezko	EAJ-PNV
Jesus Arana Gomez	Ordezko	EAJ-PNV
Miren Letamendia Belloso	Ordezko	EAJ-PNV
Aitor Korta Etxabe	Ordezko	EH Bildu
Ane Arruti Lopetegi	Ordezko	EH Bildu
Pablo Garcia Astrain	Ordezko	PSE-EE
Oihane Delgado Pita	Ordezko	Irabazi Zarautz

4.- INFORMAZIOA

a) Finantza eta aurrekontuei buruz: 2015eko 2. hiruhilekoa

Segidan, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2015eko lehenengo hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

b) Ordainketako batez besteko epeari buruz: 2015eko 2. hiruhilekoa

Hurrena, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2015eko lehenengo hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, 2014ko Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- KOMUNIKAZIOA UDALBATZARRARI: GASTU ARAUA ETA AURREKONTUEN EGONKORTASUNA BETE EZ IZANA 2015eko EKITALDIKO KREDITU-ALDAKETAK ONARTZEAN

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaizkio Kontu-hartzaitzak 2015eko maiatzaren 29an egindako txostenak: aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoak, eta Udalak onartutako kreditu aldaketen ondorioz egin beharrekoak zirenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6.- 2014ko KONTU OROKORRA ONARTZEA

2015eko maiatzaren 6an egindako bileran, Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman zion 2014. ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorrari.

Kontu orokorra jendaurrean egon zen, 15 eguneko epean, 2015eko maiatzaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (87 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez; eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

2015eko uztailaren 24an egindako bileran, Gobernantza Batzordeak 2014. ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorraren berri jakin du.

Horrenbestez, Gobernantza Batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Zarauzko Udalaren 2014. urteko Kontu Orokorra onartzea eta, halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea.

7.- 2015. URTEKO AURREKONTUAN KREDITU ALDAKETA HAUEK ONARTZEA

a) U-GE-05 espedientea (kreditu gehigarrien modalitatean). hasierako onespena

Udalbatzarrak erabaki zuen "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoa desegitea, 2014ko abenduaren 31ko ondorio-datarekin; beraz, saldoak (sarrerak eta gastuak) 2015eko aurrekontuan sartu behar dira. Hori bideratzeko beharrezkoa da kreditu aldaketarako espediente bat onartzea.

Horretarako, 2015. ekitaldiko aurrekontuan U-GE-05 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea prestatu da. Kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da.

Ikusita egin diren txostenak eta espedientean dauden dokumentuak, eta Gobernantza informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea U-GE-05 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedienteari. Udal honek 2015. ekitaldirako duen aurrekontuari

dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da, laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
2	Gastu arrunta	238.387,10 €
4	Transferentzia arruntak	33.211,79 €
6	Inbertsio errealak	70.981,09 €
8	Finantza aktiboak	5.409,11 €
GUZTIRA ...		347.989,09 €

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
3	Tasak eta bestelako sarrerak	16.828,60 €
8	Finantza aktiboak	331.160,49 €
GUZTIRA ...		347.989,09 €

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, kreditu aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko. Dena den, aurrekontu orokorra onartzeko ezarritako gainerako izapideak bete beharko ditu espedienteak.

b) U-GE-06 espedientea (kreditu gehigarrien modalitatean). Hasierako onespina

2015eko uztailaren 16an egindako aparteko osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki hau hartu zuen: "Batetik, 2015. urterako bai erabateko dedikazioak edo dedikazio partzialak eta horien ordainsariak, bai zinegotzientzako eta talde politikoentzako dirusariak eta, halaber, bilkuretara joateagatik kalte-ordainak finkatzea; eta, bestetik, gastua baimendu eta gauzatzea indarrean dagoen aurrekontu orokorraren kontura". Hori guztia bideratzeko beharrezkoa da kreditu aldaketarako espediente bat onartzea.

Horretarako, 2015. ekitaldiko aurrekontuan U-GE-06 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea prestatu da. Kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da.

Ikusita egin diren txostenak eta espedientean dauden dokumentuak, eta Gobernantza informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea U-GE-06 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedienteari. Udal honek 2015. ekitaldirako duen aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da, laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
1	Pertsonalaren gastuak	124.300,00 €
	GUZTIRA ...	124.300,00 €

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	124.300,00 €
	GUZTIRA ...	124.300,00 €

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, kreditu aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko. Dena den, aurrekontu orokorra onartzeko ezarritako gainerako izapideak bete beharko ditu espedienteak.

c) U-TR-01 espedientea (kreditu transferentzien modalitatean)

Indarrean dagoen aurrekontu orokorra Organigraman eta Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketetara egokitzeko, kreditu-aldaketa bat tramitatu behar da.

Horretarako, 2015. ekitaldiko aurrekontuan U-TR-01 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea prestatu da. Kreditu transferentzien bidez gauzatuko da.

Ikusita egin diren txostenak eta espedientean dauden dokumentuak, eta Gobernantza informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

U-TR-01 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea onartzea. Kreditu transferentzien bidez gauzatuko da, 623.874,84 euroko zenbatekoaz.

8.- CARITAS-ENTZAKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA AURREIKUSTEA: UDAKO JANGELARAKO.

2015. urteko aurrekontuan 29.000 euroko zenbatekoa aurreikusi zen, 1 0503.481.04.326.00 2015 04194 aurrekontu-partidaren kontura, udako jangelarako diru-laguntzak emateko xedez.

Gauden urte garaian gaudela eta diru-laguntza horien deialdia oraindik egin gabe dagoela, iritzi zaio bidezkoa dela laguntza zuzenean CARITASi ematea, bera baita Zarauzko udalerrian janariak eskaintzen dituen.

Horretarako, udal aurrekontuan aurretik jasota eduki behar da onuradunaren, kasu honetan, CARITASen aldeko diru-laguntza izenduna.

Behin aurrekontuan horrela jaso eta gero, Alkatetza izango da, dekretu bidez, diru-laguntza emateko organo eskuduna.

Ikusita azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamendua, bai eta diru-laguntzak emateko udal ordenantza ere, eta aurretik Gobernantza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

2015. urteko aurrekontuan zuzeneko diru-laguntza izendun hau jasotzea, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 22.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

- | | |
|-----------------------|----------------------------------|
| - Onuraduna: | CARITAS |
| - Zenbatekoa: | 29.000,00 euro |
| - Xedea : | Udako jangela Zarautzen |
| - Aurrekontu-partida: | 1 0503.481.04.326.00 2015 04194. |

9.- 2016. URTERAKO ZARAUZKO UDALERRIKO TOKIKO JAIEGUNA FINKATZEA.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekainaren 30eko 118/2015 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2016. urteko jaiegunen egutegia onartu zen (2015eko uztailaren 8ko EHAA, 127. zk.).

Dekretu horren indarrez, 2016. urterako udalerrri honetako tokiko jaieguna proposatu behar du Udalak.

Hori horrela, Gobernantza Batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari proposatzea 2016. urtean udalerrri honetako tokiko jaieguna izan dadila ekainaren 27a, astelehena, San Pelaio herriko zaindariaren bigarren eguna.

13.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

a) EAJ-PNV, EH Bildu eta Irabazi Zarautz taldeek: Euskal Selektzioaren aldeko Mendi Martxari atxikimendu adierazpena

Ondoren, EAJ-PNV, EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ taldeek aurkeztutako proposamena irakurri du **idazkari** andreak. Honela dio:

EUSKAL SELEKTZIOAREN ALDEKO MENDI MARTXARI ATXIKIMENDU ADIERAZPENA

Mozio hau izenpetzen duten talde politikoek hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurari, Euskal Selektzio ofizialen Aldeko Mendi Martxa antolatzen duen Mendi Martxa taldea eta bere helburuei Udal honen atxikimendua adieraztea.

MOZIOA:

Hau dela eta, Zarauzko Udalak honako ERABAKIAK hartu ditu:

1. Euskal Selektzioaren aldeko Mendi Martxak adierazten duen bezala, Zarauzko Udalarentzat ere ezinbestekoa da kirol arlo guztietan euskal kirolariak duten erabakitze eskubidea errespetatzea eta, aldi berean, norberaren selektzioa aukeratu ahal izatea.
2. Zarauzko Udalak, arlo bakoitzean ofizialtasuna izango duen Federazio Nazional bat osatzea aldarrikatzen du. Euskal Herrian badira adibideak eta, horien bidez, frogatu da posible dela egitura nazional bat sortzea eta arrakastaz funtzionatzea.
3. Zarauzko Udalak, bat egiten du Euskal Selektzioaren aldeko Mendi Martxak burutzen duen egitasmo eta aldarrikapenekin, bere atxikimendu osoa adieraziz.
4. Euskal Selektzioaren aldeko Mendi Martxa antolatzen duen Mendi Martxari jakinaraziko zaio hartutako erabakia.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.